

Esp. Zkia.- z/g
E.E.- 2025-00181

173/2025 ALKATETZA DEKRETUA:

Larrabetzuko Udaletxean, 2025eko jorrailaren 29an.

OINARRIA: 2025eko zezeilaren 14an BAOean 2025 ekitaldirako Larrabetzuko Udal Aurrekontu Orokorraren behin betiko onarpena argitaratu egin zen. Horretan EUSKAL FONDOA , G-48772487 IFK zenbakidunaren aldeko, nazioarteko kooperaziorako diru-laguntza zuzen nominatibo bat jasotzen da aurrekontuaren aurrekontu partida konkretuan (231-48100). Hau horrela Euskal Fondoak 2025eko jorrailaren 16an udal sarrera erregistroan E202501319 inskripzio zenbakiarekin diru laguntzaren eskaria aurkeztu zuen.

OINARRIA: 2025eko jorrailaren 29ko datarekin udal kontu-hartzailetzak txostena egin zuen.

OINARRIA: Honako honeetan xedatutakoa: Diru-laguntzen 38/2003 Lege orokorraren 22.2.a) artikuluan, 887/2006 Errege Dekretuak onetsitako Diru-laguntzen Araudi Orokorraren 65. artikuluan.

Honen bidez, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dauzan apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren arabera, **HAU EBATZI DOT:**

LEHENENGOA.- EUSKAL FONDOA erakundeari (IFK: G-48772487); 16.000,00 euroko diru-laguntzea emongo jako, 231-48100 aurrekontuaren aurrekontu-partidea zordunduta (983,27 € kide moduan eta 15.016,73 € diru laguntza moduan) garapenerako kooperazio proiektua garatzeko. Diru-laguntzaren %100 ordaindu egingo da.

BIGARRENA.- Diru-laguntza Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Legeak adierazitakoari jarraitu justifikatu behar da, 2026ko zezeilaren 28a baino lehen.

HIRUGARRENA.- Ebazpen honen berri udal diruzaintzari jakinaraziko zaio ordainketa egin dezan.

LAUGARRENA.- Prozeduran parte hartu daben beste lizitatzailer guztiei ebazpen honen jakinarazpena egingo jake.

BOSGARRENA.- Ebazpen honen barri emongo da Udalbatzeak egingo dauen hurrengo bilkuran.

Amaia Lekue Mezo
Alkatea

Nire aurrean,
Idazkaria